

EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA-JARDUNALDIA



SILVIA DABOUZA

Jardunaldia Bilbon egin zen joan den hilaren 17an, eta bertan parte hartu zuten hala euskal administrazioko zenbait arduradunek nola jardunaldiko gaiarekin lotura duten eginkizunetan diharduten hainbat profesionalak eta adituk.

Osasuneko sailburu Jon Darpónek aurreratu zuenez, mutilazio genitala prebenitzeko protokolo bat sortu dute Emakunderekin koordinatuta, eta, bidenabar, haren sail bereko zuzendariorde Pepe Quintasek eskerrak eman zizkien gida horretan aritu diren Osakidetza profesionalak.

Emakundeko zuzendari Izaskun Landaidak adierazi zuenez, [EAEn 1.000 neska inguru daude mutilazioa jasateko arriskuan](#). Nolanahi ere, nesken interes orokorrak nagusi izan behar duela azpimarratu zen jardunaldian.


Bestetik, Biltzen, Integrazioko eta Kulturarteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuko Jeanne Rolande Dacogna hizlariaren iritziz, mutilazioa, kontu larria izanik ere, ez omen da atzerritarren arazorik handiena: arrazakeria, estigma edo langabezia, esaterako, askoz gogorragoak omen dira.

Laster eskura izango dugun gida horretan zenbait jarraibide eman go dira mutilazioa sufritu duten emakumeak artatzeko eta nesken artean prebenitzeko, eta erregistroa funtsezkoa izango da lan horretan arituko diren talde multidiziplinarrek arrakasta izan dezaten, betiere konfidentzialtasuna bermatuta.

Amaieran mahai-ingurua izan zen, Bilbo-Basurtu eta Barakaldo-Sestaoko ESletako profesionalak osatua. Bertan esan zenez, mutilazioaren prebentzioan, batez ere lehen mailako arretako pediatrik eta emakumearen arreta-arloko ginekologoak, emaginak eta gizarte-langileak arituko dira, eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak abian jarriko dira profesional-sareak sortzeko. Gainera, hezkuntza-sektorearen eta komunitatearen lankidetzaren garrantzia azpimarratu zen, gai hau osasuna baino zabalagoa baita.

DUELA GUTXIZ GEROZTIK PAZIENTEEK ETA ERABILTZAILEEK EUREN LEHENTASUNEZKO HIZKUNTZA ALDA DEZAKETE OSASUN-KARPETAN SARTUTA

Orain arte zerbitzu-erakundeei zegokien paziente-ei galdetzea zein hizkuntza lehenesten zuten ahozko harremanetarako, baina hemendik aurrera pazienteek ere egin ahal izango dute osasun-zentrorra jo gabe, [osasun-karpeta](#)ren bitartez.

Euskara aukeratuz gero, Bai sano!-ko ikurra  agertuko da Osakidetza erabiltzen dituen aplikazio informatikoetan (Osabide AP, Osabide Global, E-Osabide, Osasun Karpeta...) eta, horrela, profesionalak erraz identifikatuko du paziente euskalduna.

Osakidetza 2. Euskara Planak aurreikusita zeukan urrats garrantzitsu horretaz jardun ginen [Osatuberriren 21. zenbakian](#).

EUSKARAREN GAINKO DISKURTSO PARTEKATURAKO ZORU KOMUNAREN OINARRIAK

HPSek, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, legealdiaren hasieran aurkeztu zuen lan-programako eginkizun nagusietako bati helduz, Euskararen Gaineko Oinarriko Diskurtsoaren lanketa izeneko egitasmoa jarri zen abian orain bi urte, Euskararen Aholku Batzordeak proposamena onartu ondoren.

Ibilbidean bost multzo edo diskurtso izendatu dira –errespetuarena, balio pragmatikoarena, sustatzailea, aldarrikatzailea eta mesfidatia–, eta HPSek diskurtso horien arteko intersektzioa izan litekeenaren eduki zehatzak definitu ditu. Intersektzio hori izan daiteke, hain zuzen ere, euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarria.

Bost diskurtso horiek 33 esaldiz osatuta daude eta esaldi bakoitzak onarpen-maila ezberdina du. Intersektzio edo zoru komun hori definitzeko, esaldi horietatik edota ikerketako bestelako galderetatik ateratako ideietatik % 66,6tik gorako babesa dutenak hartu dira. Onartutakoak hogeita bat izan dira, eta, horrela, definituta geratu dira [gutxienez gizarteko bi herenek ontzat ematen dituzten ideiak](#).



ARAITZ MUGURUZA

«Debekua ezartzea erraza da, baina alternatibak ere eman behar dira»

anjel alaio

Arangoitiko osasun-zentroko familia-medikua

Mendekotasuna hiru ikuspuntutatik begiratura aztertuko dute Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen aurtengo jardunaldietan: alkohol- eta droga-mendekotasuna, teknologia berriekikoa eta zahartzaroari lotutakoa. Alaio Arangoitiko osasun-zentroko familia-medikua eta OEEko kidea da aspalditik, eta hark azaldu ditu apirilean Bilbon egingo diren jardunaldien xehetasunak.

Gizakiak zergatik erortzen gara horren erraz mendekotasunean?

Historiari erreparatuz gero, gizakiak beti hartu ditu mendekotasuna sortzen dioten substantziak. Alkohola eta pilulak dira horren adibide garbiak. Farmazietan saltzen dituzten pilulekiko mendekotasun izugarria dago, eta hori egunerokotasunean ikusten dugu. Batez ere emakumeak dira halako pilulei mendekotasuna dietenak. Beti

izan da hala. Alkohola ere antzinako droga da. Erdi txantxetan esaten dut, baina gizakiak deskonektatzeko behar duena tabernan ez badago, farmazian lasai asko aurkituko du.

Medikuak zarete pilulak preskribitzen dituzuenak, ordea.

Bai, eta ikustekoa da zenbat antidepresibo edo lotarako pilula preskribitzen ditugun. Ikustekoa da, baina, aldi berean, gizarte oso onartuta dago. Horrela begiratuta, ematen du medikuok gehiegi pentsatu gabe ematen ditugula errezetak, eta ez, ez dut hori esan nahi. Ezkutuan geratzen da pazienteak medikuari egiten dion presioa. Lo egiteko pilulekin gertatzen da hori, adibidez. Hiruzpalau egunetarako balio dute, baina handik aurrera, gorputza pilula horietara ohitu egiten da, eta gaina hartzen die. Kronikoki pilulak hartzen dituztenek ez dute lorik egiten epe jakin baten ondoren. Baina, pilularik hartu gabe, urduri jartzen dira. Abstinentsia-sindromea da hori.

Alkohola da, berriz, kalterik handiena egiten duen legezko droga.

Helduak eta gazteak harrapatzen ditu alkoholaren sareak. Helduaroan taberna da gure agora, pertsonak biltzen garen gunea. Gazteen kasua, berriz, desberdina da. Zer gertatzen zaie? Ez dutela dirurik, eta kalean edo lokalean egiten dituztela botila-festak. Horrez gain, askok marihuana hartzen dute. Beste era batean edaten dute. Ni mediku egoiliarra izan nintzen garaian, jende asko sartzen zen zirrosiarekin. Garai horretan, pertsona batek batez beste 40-50 txikito edan zitzakeen egunero. Zifra handia da. Ohitura zen edatea, baina aitzurra harrapatzea, mozkortzea, istripua zen. Gaur egun, ez dago egunero edateko ohiturarik, baina mozkortzea helburua da. Orain ahalik eta arinena mozkortu nahi dute. Adibide batek argiago erakusten du: larrialdietako egoiliarra izan nintzen lau urtez, eta koma etiliko bakarria ikusi nuen.

Orain, berriz, astero ikusten dituzte bat baino gehiago.

Zer egin daiteke kontu hau hobetzeko?

Debekua ezartzea erraza da, baina alternatibaren bat ere eman behar zaie gazteei; eta zein da alternatiba? Euskal Herrian tabernara joateaz gain, ez dakigu gauza gehiagorik egiten. Kirola egiten dute gazteek, baina dena ez da kirola. Harremanak egin nahi dituzte, eta horretan laguntzen die alkoholak. Gizarte guztiak izan dute beren droga;

«Gaur egun, ez dago egunero edateko ohiturarik, baina mozkortzea helburua da»

haren kontsumoa jaitsi nahi bada, beste zerbait ipini behar da. Ez edateko eskatzea ez da nahikoa.

Eta gazteak substantzien edo alkoholaren eraginez informatuz gero, ez al litzateke egoera hobetuko?

Informazio lar dugu. Haurrak eta hain umeak ez garenok imitazioz ikasten ditugu gauzak. Pertsona bat erretzaila bada, eta haren seme-alabek erretzen ikusten badute, horiek probabilitate handia izango dute erretzailak izateko. Gurasoek seme-alabei ez erretzeko eskatzea ez da nahikoa. Munduko gauzarik txarrena izanda ere, gurasoek egiten badute, seme-alabek ere egingo dute. Horrela ikasten dira gauza guztiak.

Gero eta gehiago entzuten da teknologia berrien mendekotasunaren kontua. Zuri iritsi al zaizu hala-ko kasurik kontsultara?

Identifikatzeko zailak dira halako kasuak. Sare sozialak eta sakelakoak une oro konektatuta egoteko erabiltzen ditugu, baina ez oso modu sanoan. Muturrera ari gara joaten, eta adin

guztietako jendeari eragiten dio. Noski, teknologia berriei esker, errazago komunikatzen gara, baina komunikazio hori mendekotasun bihurtzen ari da. Jendeari, ordea, normala dela iruditzen zaio. Ohikotzat jotzen dugu kalean sakelakoari itsatsita ibiltzea edo elkarrizketa batean sakelakoari jaramon egiten egotea. Muga lausoa dute.

Noiz bihurtzen dira ohiturazko jokabideak mendekotasun?

Jokabide horiek gabe ezin garela bizi ikusten badugu, mendekotasun handia daukagun seinale da.

Arlo soziosanitarioaz arituko zarete jardunaldietan.

Zahartzaroaren arazoak gorantz egingo du. Gure kontsultan, adibidez, arazo bilakatu da dagoeneko, jende gehiena adinekoa baita. 75 urtetik gora diren 200 pertsona baino gehiago ditut. Sarri entzuten ditugu komunikabideak bizi-itxaropenari buruz hizketan, baina mendekotasun gabeko bizi-itxaropenaz ari dira.

Zahartzaro denak, ordea, ez dira hala. Gizartea prestatuta al dago dependentziatzako zahartzaro baterako?

Hor ere aldaketa nabarmena egin du gizarteak. Lehen beste modu batera bizi ginen. Seme-alaba asko izaten ziren, eta etxean denak batera bizi ziren, hau da, aitona-amonekin batera. Orain, aldiz, gurasoek kanpoan egiten dute lan (egiten badute, noski) eta aitona-amonak bakarrik bizi dira. Aisialdia bera ere aldatu egin da: orain, planak egiten ditugu lagunekin, edo oportetara joaten gara. Horrek guztiak eragina dauka zaintzan.

Dependentzia handia duen batek bizitzari uko egiteko eskubidea ere jarri izan da mahaiaren gainean.

Eztabaidatzeko dago oraindik. Halako erabakiren bat duenak osasuntsu dagoenean egin behar du bizi-testamendua. Kontua da ez dugula hitz egin nahi izaten heriotzari buruz. Normal hitz egin beharko genuke, eta ondo gaudenean.

gramatika

ESAERA ZAHARRAK

Joxerra Garziak *Jendaurrean hizlari* liburuan azaltzen duenez, jasangaitza iruditzen zaion kalteetako bat esaera zaharren erabilera da. «Erabili, horixe baita zoritxarrez egiten ez duguna». Gehienez ere horietako batzuk buruz ikasten omen ditugu, esaera zaharrak maite-maiteak izan behar ditugulakoan –*Zozoak beleari: ipurbeltz!*, eta besteren bat–, eta kito, esaera zaharrekikoa. Dioskunez, «euskararen beraren kasuan bezala, hobe genuke, ordea, gutxiago maitatu eta gehiago erabiliko bagenitu esaera zaharrak ere».

Esaera zaharrek bere txikitasunean esanindar handia daukatela entzun genion behin Imanol Epelderri, Euskadi Irratiko *Faktoria* irratsaioan. «Eta ez esanindarra bakarrik. Esateko modu berezia dute. Politikak dira, bitxiak. Gainera, esaera zaharren bidez jakin genezake gure arbasoek nola ulertzen eta ikusten zuten mundua, adibidez, osasun-kontuei buruz, eta argitu ditzakete gure osasun-ohituren zenbait klabe, edo pista batzuk eman. Kontua da kutxa zahar horretan gauzak konplikatzen eta batez ere itsustu egiten direla beste hitz batzuk biltzen ditugunean, adibidez, emakume edo andre...».

Kontuak kontu, hona hemen osasunaren inguruko esaera zahar batzuk, Epeldek berak aipatuak eta beste zenbait:

- Osasuna galtzen duenak dena galtzen du.
- Osasuna, munduko ondasuna.
- Gose-urte, osasun-urte.
- Osasuna izateko, gutxi bazkaldu eta goizago afaldu.
- Osasun ona edukitzeko, oiloekin ohera eta txoriekin jaiki.
- Garizuma, osasunaren ama.
- Porrurik ezean asuna, edukitzeko osasuna.
- Ongi eginez loa, osasuna ongi doa.
- Osasuna ez dago lodi-argalean.
- Joxe Mari popolo, ipurtzulo handia, uzkerra botatzeko, osasun handia.
- Pozak osasuna du senide.
- Jan eta hotz, medikuak ez datoz.

Esaera zaharren faltan behinik behin ez gabilta. Esku-eskura dauzkagu euskaltzale batzuen lanak (*Gotzon Garate, Antonio Zabala, Koldo Izagirre, Justo Mokoroa...*) edo Joxerra Garziak gorago aipatu liburuan bere kuttunenetakoekin osatutako zerrenda ere.

Lan horietan bildutako esaera zahar asko atzerrian jaioak dira, bai eta gorago aipatu ditugun batzuk ere –*dieta o media dieta, la medicina discreta; quien quisiere vivir sano, levántese y acuéstese temprano; la salud no consiste en estar delgado o gordo; dormir bien y con prontitud es señal de buena salud; a falta de pan buenas son tortas; más cura una dieta que diez recetas*–; beste batzuetan, aldiz, ez da argi egongo nori eman ote dion. Antonio Zabalak zioenez: «Hitzeekin gertatzen dena gertatuko da esaera zaharrekin ere. Euskal hiztegiari, erdaratik hartutako hitz gehiago da, askozaz ere, erdal hiztegiari euskaratik paseak baino. Era berean, erdal esaera gehiago euskaratuko zen, euskal esaerak erdaratu baino. Nahi badugu eta nahi ez badugu, gauzak horrela ohi dira beti. Indartsuak ahulari eragiten dio, eta aberatsak pobreaki. Bertso zahar batek dioena: Gogorrena juez. Edota beste esaera zahar batek: *Goian dagoenak jotzen du kukurruku*».

Esaera zaharrak edo atsotitzak landu nahi badituzu, [ariketak hemen](#)

agenda

BERTSO-SAIO KLINIKOA

Apirilaren 8an, Hernanin, Goiko Lastola sagardotegian.

Sustatzaileak: OEE, Donostialdea ESiko Komunikazio Unitatea eta Euskara Zerbitzua, Erizaintza Eskola eta Medikuntzako Fakultatea.

Izena emateko azken eguna: apirilaren 1a.
[web-orria](#)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2016KO LEHENENGO DEIALDIA

Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 16an bukatu da. Probetarako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda martxoaren 30ean argitaratuko da, eta idatzizko probak maiatzaren 7an egingo dira, Barakaldon (BEC).
[web-orria](#)

VIII. JOANES ETXEBERRI SARIA, OSAKIDETZAREN GIPUZKOAKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA ZABALTZEKO ESPERIENTZIA ONENAREN TZAT

Lana edo ekimena entregatzeko azken eguna: apirilaren 14a.

Harremanetarako pertsona: Iñaki Villoslada, 837360.

GIZA EZKUBIDEEN XIV. ZINEMALDIA

Apirilaren 15etik 22ra, Donostian.
[web-orria](#)

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 26. OSASUN BILTZARRA: «MENPEKOTASUNEN AURREAN... GEURE BURUAREN JABE»

Apirilaren 22 eta 23an, Bilbon, EHUren Abandoibarreko Bizkaia aretoan.

[egitaraua](#)

OSASUNERAKO ELIKADURA, JARDUERA FISIKO ETA MEDIKUNTZA: HITZALDIAK

Apirilaren 15 eta 16an, Oiartzunen.

Antolatzaileak: Oiartzungo Udala eta Elikaeport zentroa. Hitzaldiak zentro horretan bertan izango dira, osasunerako elikaduraren, emakumeentzako jardueren fisiko egokituaren eta azterketa medikoen gainean.

[inskrizioak](#)

